

MERKATARI HORI:

Zure dendaren zerbitzua euskaraz izan dadin bultzatzera gatoz aurten ere; eta, bide batez, hori gauzatzeko laguntza eskaintzera Udalerri Euskaldunen Mankomunitatetik (UEMA) eta Udaletik; badakigulako euskarak zure zerbitzuari balio erantsia dakarkiola.

Inoiz pentsatu al duzu euskarazko zerbitzua errentagarriago zaizula? Hona hemen zenbait arrazoi:

- Zerbitzua bezeroaren hizkuntzan eskaintzea kalitatezko zerbitzua ematea da.
- Gure herriaren gehiengoa euskalduna da, %70etik gora; gazteak %100; eta, ez ahaztu, ulertzen duten euskaldunak ere asko dira.
- Gure herriko berezko hizkuntza euskara da, eta gure irudiaren parte.
- Jendeak eskertu egingo dizu bertako hizkuntzan aritzea eta bertako hizkuntza erakustea prezioetan, karteletan eta abar.
- Gizartean gero eta hadatuagoa da euskararen erabileraren aldeko jarrera.

Begi bistakoa da, bestalde, gure herrian ugaritzen ari dela herrira etortzen den bisitari kopurua. Euskaldunak dira bisitari horietatik asko; eta, gainerako bisitari gehienek ere euskararen presentzia estimatzen dute.

Zure denda herriaren erakusleihen den aldetik, gure kaleetako hizkuntza paisaia eta zerbitzuak euskaraz izateko bidelagun nahi zaitugu. Euskara delako gure marka.

Beraz, eskaerak egiteko, edo kontsulta baten premian zaudenean, jarri lasai gurekin harremanetan, telefonoz edo posta elektronikoz:

946 279 195 edo administrazioa@uema.eus

Eskerrik asko euskararen alde zure alea jartzeagatik, eta nahi duzun arte!